

BELZTURA

bat

Hotza sentitu du gorputz osoan. Hezetasuna hezurretaraino sartu zaio. Begiak itxi ditu iluntasunean. Ametsa da, ametsa izan behar du, errepikatu dio bere buruari. Altxatzen hasi da, baina ezin izan du, lotuta balego bezala sentitu da ezintasunean. Beldurtu egin da eta begiak ireki ditu. Hotz dago, heze. Ametsa izan behar du, baina ez daki nola esnatu, nola alde egin. Pixkanaka, gora dator ura. Berna-hezurak eta atzealdea hartuak ditu.

Ahoa ireki eta garrasia bota du, baina eztarritik ez da hari mehe eta ahul bat besterik irten. Eztula, eztul hotz eta hezea egin du. Berriro saiatu da. Oraingoan inguruko ormek itzuli diote garrasia. Belarriak estali nahi izan ditu, baina eskurik ezin du mugitu, harrapatuta dago. Uraren zarata entzun du. Gorantz dator eta belaunak hartu dizkio.

Txango bat egitera irten da, aspaldiko partez. Inor konturatzetik ez du nahi izan eta isilpean egin du. Ordu horretan irekita egoten da atzeko atea. Ez zen lehenengo aldia, ezagutzen zuen ibilbidea, sekula ez zaio ezer gertatu, baina sekula guztiek dute lehen aldia.

Agian norbait konturatuko da. Esana zien berriro egingo zuela, joan beharra zuela, derrigorrezkoa zuela. Laster konturatuko dira desagerpenaz, laster emango dute alarma, laster galdekatuko geratu direnak. Haiek badakite, baina ez dute salatuko. Urak gorantz egin du, hotza sentitu du gerrian. Begiak itxi ditu berriro. Ahoa ireki eta itxi egin du, alferrik da.

Ez daki noiztik dagoen han. Denbora geratu egin zaio. Berriro saiatu da mugitzen, baina ezinezkoa izan zaio berriro, harrapatuta dago. Luze iritzita egongo dira, horregatik salatu dute, agian. Bila ibiliko dira honezkerok. Bularraldea hartu dio ur hotzak. Zigorraren antza hartu dio.

Urduri jarri da okotzean hezetasuna igarri duenean. Mugitzeak, ordea, ez dio onik egiten, ezina baiestea besterik ez du lortzen. Bat-batean, argi izpi bat iruditu zaio. Zirrikitu bat izan daiteke. Erotu egingo da ez badute aurkitzen. Hotzikarak hartu du goitik behera eta dardarka jarri du. Garrasi egin du, entzun dezaten, eta ura sartu zaio ahoan.

Zarata entzun du, burdinazko aterean bat irekitzean egingakoaren antzekoa. Argi izpia zirudiena txorrotada bihurtu da. Begiak itxi ditu, min egin dio argitasunak. Pixkanaka ireki dituenean, norbaiten errainua ikusi du, aurrean, beragana datorrela. Ordura arte garuna zulatu dion ur zarata eten da. Urduritasuna areagotu egin zaio lasaitu beharrean, kanpoko argiak ez dio ikusten uzten. Ez du ezagutu argiaren kontra. Ezin naiz mugitu murmurikatu nahi izan dio, indarge.

Bainerak goi-mailan du ur-ertza. Bertara lotzen duen gerrikoa baieztatu du erizainak. Ur hotzetan sartu behar izaten dute halakoetan, lasaitasuna lortzen laguntzen dio hartutako pilulek baino egokiago.

Ordu erdia besterik ez, esan dio erizainak. Atearen danbatekoa entzun du eta argi izpia desagertu da. Tan-tan-na. Tan-taka jarraitzen du etena zirudien urak, garuna zulatzen. Tan-tan-na. Burua ur azpian sartzea lortu du.

bi

Banekien zenbat maite zenuen, banekien. Ezagutu zineten eguna bezalakoa izan zen zuena, ipar haizea sargorian, hitzen gozotasuna, bat-bateko elkar ulertzea, konplizitatea. Bai, bat-

batekoa izan zen zuena, urteetan une horren zain egon bazinete bezala. Pelikularen batean ikusi izan banu, eztegia iritziko nion, baina benetan gertatu zen. Hain ulerbera izan zinen berearekin!

Baina apurka mamu itxurako bihurtu zitzaizun, edanari berriro eman zionean. Etxean murmurka eta zabuka ikusi zenuen eta ezin izan zenuen horrela jarraitu. Joan egin zinen, ezinean, baina haurren bila itzuliko zinela zin eginda.

Txikienaren urtebetetzean elkartu zineten denok, zu, bera, osaba-izebak eta amona, umeagatik, umeengatik.

Ezkutuan oparitu zenion botila, isilean, gehien estimatzen zuena, eta isilean gorde zuen, hasperen eginez, eskerrik asko xume batez, une hobe baten zain.

Ez zinen etxea uzten azkena izan, denak agurtu eta goiz samar alde egin zenuen, penaz, joan beharraz damututa.

Kotxea ezkutuan aparkatu eta ingurura itzuli zinen oinez. Osaba-izebak eta amona irteten ikusi zenituen, elkarrekin, aitera musuak bota eta agur esaten.

Umeen gelan argia piztu zen eta pijamak janzten imajinatu zenituen, eguneko kontuak gogoratu eta musuak eta gabonak ematen, azken bider zorionak kantatzen. Argia itzaltzean ez zinen mugitu, denbora eman zenion.

Botila eskuan imajinatu zenuen, baso beharrik gabe, zurrut luzean, eztarria erreta lehen tragoan, leundua bigarrengoan. Denbora eman zenion botila berdindu zezan.

Isilik sartu zinen. Igerilekurako atea irekita topatu zenuen. Hantxe zegoen, ertzean eserita, hankak uretan, botila hutsa alboan, buru makur. Zerbait murmurikatu zuen, baina ez zenion ulertu. Pena eman zizun eta lagundu egin zenion, uretara jaisten, sakonenean. Besoak astindu zituen, zerbait oihukatu nahi izan zuen, baina ez zenion ezer ulertu.

Isilik egin zenuen atzera, kotxea utzitako parera.

Gauzak izan ziren bezala kontatu nahi dizkizut, gogora ditzazun, dena ikusi nuela jakin dezazun.

hiru

Aitak ganbarara bidali zuen iluntzean hasi zen dena. Garra-si latz bat bota, atea itxi eta lasterka eta beldur betean jaitsi zen handik umea. Haurraren kontaktak hotzikara eragin zuen sukaldean.

Zaratak entzun zituen hasieran, haur baten negarra, baita barre algara ere. Ondoren, ilunabarrean, gari-zakuen arteko tarte batean, berea zulatzen zuen begirada sarkorra ikusi zuen. Begi beltz handiak ziren, elizako Santiagoren hankapean zegoen deabruarenak bezalakoak.

Lapurren bat ibil zitekeelakoan, eskopeta hartu eta igo zituen aitak ganbarako eskailerak. Zalantza egin zuen gero, bai baitaki katuak haur baten negarra imitatzen. Baina, maratila ireki aurretik entzun zituenak ez ziren parte onekoak izan. Norbait ito beharrean balego bezalako intziriak hasieran, barre algara zoroak ondoren, haurrak aipatutako ume-negarra. Atea itxita zegoela ziurtatu eta jaitsi zen beheko solairura. On-do ulertu zuen haurraren beldurra.

Hurrengo egunean inor ez zen ausartu ganbarako atera irekitzen. Auzoko baserrietara jo zuen aitak, eta etxeko gizonak hurbildu zirenean, beldurrak hartu zituen ganbaratik zetozen barre algara, negar zotin eta marru lazgarriak entzunda. Inor ez zen gora igotzen ausartu.

Apazari deitzea pentsatu zuten goizean, egun haietan erreka inguruan zebiltzan ijitoak agertu ziren, eskean, baserriko atarian. Oraingoan, kanpotik entzun zituzten ganbaratik zetozen marruak, eta ijitoek galdetu egin zuten.

Baserrian noizbait bortxaz hildako norbaiten izpiritua izan zitekeela agertu zuen buru zirudienak, eta euren sinesmenean halakoak uxatzeko konjurua bazutela agertu. Diru apur baten truke egiteko prest legokeela gaineratu zuen.

Igo zen, baina espero baino lehenago zen, atzera, atarian. Diru gehiago eskatu zuen, mailu bat, bizpahiru laban, artaziak, era desberdinetako ontziak eta kutxa handi bat, izpiritua bertan sartzeko.

Konjurua egiten zuen bitartean, baserritik urrun mantentzeko agindu zuen, albo-kalterik gerta ez zedin, eta hala urrundu ziren denak. Gainontzeko ijitoek ere bideari ekin zioten, talde buruak topatuko zituela eta.

Angelusa orduko patriarka desagertu egin zen ganbaran eta izpiritu hark ateratako oihu guztiak desagertu ziren bat-batean. Era berean desagertu ziren mailua, labanak, artaziak, ontziak eta kutxa handia; baita dirua ere.

eta lau

Kartelak ipini zituzten paretetan, eta auto bateko bozgorailuek lau haizetara zabaldu zuten ikuskizuna. Aspaldiko partez, eguneroko monotonia apurtuko zuen saioa izango genuen bertan, inora joan beharrik gabe. Hain famatua egin zen magoa gure herrira helduko zen.

Magoa ezaguna zen bere ausardiagatik, hartzen zuen arriskuagatik, heriotzari aurre egiteko abileziagatik, eta hori estimatu egiten da, gehiegi baitira gezurrezko mundua ageriegian uzten duten sasi-magoak.

Leku aproposa behar eta Kafe-antzokia aukeratu zuten emanaldirako. Kartelak agertu eta hurrengo egunean jarri zituzten sarrerak salgai. Magoaren izenak erakarrita, berehala amaitu ziren, gutxitan izaten baita halako aukera.

Ikuskizuna gertutik ikusteko asmoz, ordua baino askoz lehenago gerturatu nintzen antzokiko atarira. Hala ere, lauzpabost lagun topatu nituen arinago joanak.

Okasiorako bereziki prestatu zuten antzokia: aulkiak egoki lerrokatuak, kurtina beltzak agertokian eta urrezko hiltzez apaindutako kutxa beltz misteriotsua erdian, argi izpi lotsatiek ingurua argitzen zutela.

Txalo zaparradaren ondoren, boluntario bat eskatu zuen. Mar-marra zabaldu zen lepo betetako antzokian. Eskailerak jaitsi eta lehen lerroa zeharkatu zuen, begiak itxi eta eskua luzatuta. Nire parera heltzean geratu egin zen. Begiak ireki eta eskua nigana ekarri zuen, jainkoak nola, zeru hartan aingeru aukeratua nintzela adierazteko.

Txalo artean hartu ninduten. Neska eder batek lagundu zidan eskaileran gora. Magoak urrezko hiltzez apaindutako kutxa beltzean sar arazi ninduen. Ezpatak erakutsi zizkidan. Estalkia itxi eta ilunak hartu zuen barrua. Ezpata bat, bi ezpata. Hirugarrena kosta egin zitzaion, baina laugarrena erraz sartu zuen. Baita handik aurrerako guztiak ere. Jadanik ezin konta ezpatak. Beroa, hezetasuna, anemia ere sentitzen hasi nintzela uste dut. Bat-batean, estalkia irekitzean, oihuak entzun nituen. Nire ingurura hurbildu ziren, ezin sinetsita. Eskaileran gora igotzen lagundu zidan neska ederra larri ikusi nuen, negar-zotinka. Musika isildu zuten, eta jendea altxatu egin zen zer ikusiko. Ni ikusle bat besterik ez nintzen, magia saioa ikustera joan eta ikuslegotik hautatu zuten ikusle xumea besterik ez.

Joxemari Urteaga